

Egitaraua “Barnetegi Teknologiko”



Antolatzailea: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila SPRIren bitartez.

Data eta tokia:

- 2018ko apirilaren 25a - K10 Hotela, Erratzu poligono Industriala, z/g, 20130 Urnieta (Gipuzkoa)
- 2018ko maiatzaren 15a – Zenit Jardines de Uleta Hotela, Uleta 1, 01007 Vitoria-Gasteiz (Araba)
- 2018ko ekainaren 19a –Antsoategi Hotela, Altza Auzoa 15, 48277 Etxebarria (Bizkaia)

Ordutegia: 9:00etatik a 19:00etara.

Izen-ematea (gehienez 15 lagun):

<http://www.spri.eus/euskadinnova/eu/enpresa-digitala-eu/agenda/barnetegi-teknologikoa-eudel/14093.aspx>

Udaletako kargu politikoentzat bakarrik



1. Barnetegia filosofia didaktiko eta pedagogiko bezala

Gure eguneroko bizitzan ordu asko ematen ditugu gauza berriak ikasten, baina gero eta denbora gutxiago daukagu horretarako, eta horregatik behar ditugu ikasbide azkarragoak.

Barnetegietan dena dago pentsatuta helburu hori lortzeko. Barnetegiak aukera ematen digu gure arreta eta denbora kontzentratu eta modu azkar, eraginkor eta atseginean ikasteko: gure eguneroko mundutik isolatzen gara helburu berdina dituzten beste pertsona batzuekin, eta osoki murgiltzen gara helburu horiek lortzeko bereziki diseinatutako esperientzia batean.

“Barnetegia” **EZ** da teknologiari buruzko prestakuntza-ikastaro bat.

2. Helburua

“Barnetegi Teknologikoaren” helburua da gaur egun gehien erabiltzen diren edo praktikoenak diren IKTen artean batzuk aukeratu eta haiek behin eta berriz erabiltzea, haiei buruz gutxieneko ezagutza izatea, dela erosterako orduan irizpide argi bat izateko edo dela solas batean aipatzen direnerako. Baina, batez ere, enpresa edo antolakunde baten etorkizuna zehaztuko duten erabakiak hartzen dituzten pertsonentzat da “Barnetegi Teknologikoa”, ohar daitezen IKTak ez direla kanpoko tresna ilun eta konplexuak, baizik eta tresna erabilgarriak direla eguneroko lanean, eta lagundu egiten digutela produktibitatea eta eraginkortasuna hobetzen.

“Barnetegi Teknologikoan” praktikaren bidez ikasten da hainbat tresna erabiltzen, ordenagailuan bertan, telefono mugikorrean, gailu teknologikoetan, eta abarretan. Beste tresna asko ere ezagutaraziko dira, batzuk lehendik ezagunak eta beste batzuk ez.

Hainbat irakasle egongo dira azalpenak osatzen eta ikasle bakoitzari bere bakarkako lanean laguntzen.

3. Norentzat

Udaletako kargu politikoentzat bakarrik.

4. Metodologia

Formatu trinkoan emango da eta edukiak jomuga publikoari egokituko zaizkio, kasu honetan sektore turistikoari. Ingurune isolatu batean egingo da, denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Barnetegiak bereziki pentsatuta daude Informazio Gizartearen eta IKTen balioak transmititzeko.

5. Egitaraua

Landuko diren edukiak honako hauek dira:

- 9:00-9:15** Sarrera. Ongi etorria.
- 9:15-10:45** Eraldaketa digitala. (Teknologiak gizartera ekarriko dituen etorkizuneko aldaketak eta Udaletxe bezala eman dezakegun laguntza aztertu).
- 10:45-11:00** SPRI-Eusko Jaurlaritza ekimenak (SPRIk eta Eusko Jaurlaritzak esparru digitalean dituzten laguntzen laburpena).
- 11:00-11:15** Atsedenaldia. Kafea.
- 11:15-14:00** Produktibitate pertsonala (Prozesuak, Oztopoen kudeaketa, produktibitate tresnak).
- 14:00-15:30** Bazkaria.
- 15:30-16:30** Smart Cities/Hiri adimendunak. Gauzen Interneta (Zerbitzu berriak, kontsumoak, errealitate areagotua).
- 16:30-17:15** Onlineko ospearen kudeaketa (Marka pertsonalaren kudeaketa Interneten, bereziki sare sozialetan).
- 17:15-17:30** Atsedenaldia. Kafea.
- 17:30-18:45** Zibersegurtasuna (Erakundeen esparruan, baita esparru partikularrean ere).
- 18:45-19:00** Ondorioak, agurra eta amaiera.